

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

222

AGINDUA, 2020ko urtarrilaren 14koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, honako agindu hau aldatzeko dena: Agindua, 2019ko abenduaren 5ekoa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez berriazko lehiaketaren deialdia egiten baita Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetarako, eginkizunengatik eta/edo hizkuntzagatik bereziturik dauden lanpostuak betetzeko.

Lan eta Justiziako sailburuaren 2019ko abenduaren 5eko Aginduaren bidez berriazko lehiaketa baterako deialdia egin zen Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetarako, eginkizunengatik eta/edo hizkuntzagatik bereziturik dauden lanpostuak betetzeko.

Akatsa atzeman da I. eranskinean, 2020/48 orrialdean (24/17) ageri diren Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko bi lanposturen destinoetan, hauetan zehazki:

Lanpostua: 580029. Dotazioa: 6.

Lanpostua: 580029. Dotazioa: 7.

Lanpostu horien destinoko zentroa aldatzen da I. eranskinean.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lan eta Justiziako sailburuaren 2019ko abenduaren 5eko Aginduaren I. eranskina –Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoa, 2020/48 (24/17) orrialdea– aldatzea; agindu horren bidez berriazko lehiaketa baterako deialdia egiten da Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetarako, eginkizunengatik eta/edo hizkuntzagatik bereziturik dauden lanpostuak betetzeko. Honela:

Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu-mota	Herria	LH	Destino-zentroa	Kidegoa	Hizkuntza-eskakizuna	Hizkuntza berez. data	Oharra
580029	6	Proz. eta Adm. izapidegilea BZEP	S	Vitoria-Gasteiz	Araba	Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala - B sekzioa (Instrukzioa eta Penala)	P.A Izapidetza	2.	2015-01-31	
580029	7	Proz. eta Adm. izapidegilea BZEP	S	Vitoria-Gasteiz	Araba	Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala - A sekzioa (Zibila, Fam., Merk. Soz. Adm.)	P.A. Izapidetza	2.	2015-01-31	

2020ko urtarrilaren 20a, astelehena

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea 10 egun balioudun luzatzea, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 14a.

Lan eta Justiziako sailburua,
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.